

## egunekoa

Mikel Ortega eta Nuria Uregi

(Kanpo Zorra Ezeztatzeko Herritarren Sarearen izenean)

# Zor ekologikoa eta kanpo zorra

**G**utxien industrializatuta dauden herrietan pertsona bat jaiotzen denean, batez beste 450 euro zor dizkie herririk industrializatuenei. Zor hori, herri askotan, urtebeteko soldataren parekoa da.

Hegoaldeko herri horiek itota daude aberatsen eskatutako finantza zorragatik, eta honako hau galdetzen dute: zenbatekoa da europar eta estatubatuar bakoitzaren zor ekologikoa? Eta hura onartzeko eta itzultzeko eskatzen dute.

Zor ekologikoa herririk industrializatuenean gutxien industrializatutako herriekin duten ardura eta betebeharra da. Zor hori kitatu egin behar da, honako hauengatik ordaindu behar zaie:

– Haien natur baliabideak neurritz gain ustiatu dira gure kontsumo jasanezinari eusteko.

– Baliabideak ustiatzean ez ditugu kontuan hartu haien ingurumen eta gizarte eraginak.

– Botere handiagoa izateaz baliatu gara, eta ustiapen baldintzak ezarri ditugu.

– Zabaldu dugun CO<sub>2</sub> kopuruak klima aldatzea ekarriko du (ekartzen ari da), eta horrek herri pobreei ere eragiten die, emisioaren errurik ez izan arren.

– Ingurumenari lotutako beste hainbat bidegabekeria ere egin dira, hala nola biopirateria eta hondakinen garraioa, zein nagusikerian eta tratamenduan izandako bereizkeria gero eta handiagoan oinarrituta egin baita.

Hirugarren Munduko nazioek finantza zor jasanezina ordaintzeko eska-

tzen dute finantza hartzekodunek, eta horrek eraginda (Egiturazko Doikuntza Programen inposizioarekin batera), aipatu nazioak ekologia hondatzen duten praktikak egitera behartuta daude zor horiek ordaintzeko.

Egiturazko doikuntza planak ekonomi, gizarte eta finantza neurri batzuk dira, eta bi helburu dituzte: inflazioa geldiaraztea eta ordainketen kanpo balantzea orekatzeko (zorria bera eta zorrak eragindako interesak barne hartuta). Ordainketen kanpo balantzea orekatzeko beharra dela-eta, zorpetuta dauden herrietako gobernuek teoriaraino hainbat aukera dituzte:

– Barne soldata eta, oro har, gizarte gastua murriztea. Herri gehien-gehienek, batzuek gehiago bestetzuek baino, bide horri heldu diote; hala ere, ez da aski beren ordainketak orekatzeko, eta ondorio larriak ditu gutxien babestuta dauden biztanle sektoreentzat.

– Kanpo truke-erlazioa hobetzea. Teorikoki posible da bide horri heltzea, baina ez da erabili azken 30 urteetan. Egia esan, erlazio horrek okerrera jo du, batez ere esportazioko lehengaien prezioak jaitsi egin direlako, eta balio erantsi handiko produktuetan esportazioekiko mendekotasuna handitu egin delako.

– Eraginkortasun tekniko handituta, teoriaraino posible izango litzateke ordain-

keta balantzea orekatzeko. Hala ere, beharrezkoa izango litzateke inbertsio handiak egitea, bai eta ikerketa eta garapen esparruetan epe luzeko edo er-taineko planifikazioa egitea ere, baina

biotako bat bera ere ez da posible zor handiena duten herrietan.

Zorpetutako herriek, egia esan, aukera bakarra dute, honako hauek egitea: beren natur baliabideak neurritz gain ustiatzea, lur onenak esportazio-

rako erabiltzea, eta transnaziionalen jarduna onartzea (dibisak ekartzen baitituzte), jardun horrek ingurumena hondatu arren.

Aspaldi ez dela Iruñean bildu ziren EBko Energia ministroak. Ministro horiek berak ahalegintzen ari dira iritzi publikoari sinetsarazten Kyotoko akordioak aurrerapauso handia direla klima aldaketaren aurkako borrokan.

Kyotoko protokoloa, ordea, kasik nazioarteko lehen akordioa delako meritu izan arren (AEBek ez dute babes-ten), ez da aski, eta, gainera, bidegabea da.

Honako honengatik ez da aski: Klima Aldaketaren aurkako Nazioarteko Taldean bildutako zientzialarien arabera, atmosferan CO<sub>2</sub> maila iraunkorra izateko %60 murriztu behar dira emisio mailak 1990ekoan aldean, baina Kyo-

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

### ZOR EKOLOGIKOA

**Herri industrializatuenean gutxien industrializatutako herriekin duten ardura eta betebeharra da**

## seiko urrea

Mattin Irigoien



Aberatsen kintal gostaia...

**B**ihi kintal batek beste bat balio duke. Agian. Kintal horietarik bat 200 hektareako etxalde batetik aterako da. Pozoi eta ongailu zernahi beharrezko dituzke, lurraz irentsi ahala berdin, tresneria eta prestamuak ibroki, eta hazi transgenikoen fruitu daiteke... Agro-industriak eskaintzen dituen ekai eta plangintza guzien umea izanen da. Aldiz beste kintal bat, beste la onduko da. Etxalde ttipiagoko batean, 20 hektarea edo gutiago, produktu gutirekin, ekoizpen gutiagorekin bihi bakoitz.

Bi kintal horiek ber prezioan estimatuak dira. Ber balioa dutea horrengatik? Ez. Diru eta etekin gehiago eskuz aldaraziko ditu etxalde handikoak,

gehienak agro-industriaren esku egonen direnak gainera, azken urteetako tirabiretan distribuzio handiarengana lerratzeko tendentzia agertzen bada ere. Beti ere, diru harat-hunarat gehiagoko sortuko du molde intentsiboko kintal bakoitzak. Aberastan gehiago *sortuko* du. Alta, gosta ere ez dauka ttipiena. Gosta soziala, bide hortan, lauetan etxalde gutiago aski baitira. Gosta ekologikoa, ingurumenean egin desmasia eta kutsadurak alimaleak baitira eta oraino ezagutzekoak hein batean. Gosta humano-soziala: probetxuaren logikak akulatu molde industrialek osasunerako lanjeros diren «kalitatezko» ekoizpenak ematen baititu. Bizkitartean, gosta hauek ere beren balioa dute.

Etekin ederrik ateratzen ahalko baita oraino des-kutsatzen, eritasun berrien artatzen, langabe edo prekarioen esplotatzen...

Azken egunetan Laborantza Politika Bateratuaren erreforma aipatu da. Gaur arte, kintal «aberats» hori du gehienik laguntzen. Etxalde ttipiko kintala baino hamasei aldiz gehiagotan.

Gainera, handizki lagundu horien ekoizpenak, burrustaka isurtzen dira merkatu «mundialera», erdi kitorik, herrialde pobreetako laborantza zangoz goratuz horrela... Gosta neo-koloniala.

Azken aldietan erreforma egin denean diru xahutzeak mendratzearen ikuspegitik arrazoitu dira, eta egintzetan kintal aberatsa gehiago lagundu da beti. Nahiz jokoan dena, bizi kalitate edo jendarte haututik duen zerbait izan, ekonomia ikuspegi hertsitik ere, ageri da kintal horrek, dituen gosta kolateral guziekin, ez duela gehiago diru laguntzen ukateko justifikaziorik.

## zutabea

Juan Kruz Lakasta



Ohitura zaharrak

**G**urasoek umetan, sanferminetan, egun pare batez edo, zezenplazara eramaten ninduten entzierroaren amaiera ikustera. Entzierroak plazan segundu gutxi irauten du, eta ez da batere ikusgarria izaten ibilbideko beste edozein tokitakoarekin alderatuta. Halere, gozatzen nuen gozatzen nuenez. Beti ere entzierroarekin baino entzierroaren aurreko giroarekin.

Harmailetan gau-pasan zirenek esnatu berriekin egiten zuten bat: nireak bezalako gurasoak ni bezalako seme-alabekin, erretiratuak, nerabe kuadrilak... Festazaleok harmailak mukuratu betetzen zituzten, eta ulu batean aritzen ziren kantuan, etenik gabe, orain «Bat, bi, hiru, lau Osasuna gora!», orain «La barbacoa, la barbecue».

La Pamplonesa musika bandak plaza erdian jotzen zuten bitartean, bizpahiru gau-pasa egile ausartek hondarrera salto egiten zuten. Lehenak, esaterako, hiru txiribuelta egiten zituen, bigarrenak toreroarena egiten zuten eta hirugarrenak ipurdia erakusten. Harmailetan, jendeak barre egiten zuten, eta, balentriaren merituaren arabera, zenbaitetan txaloak ere izaten ziren.

Aurtengo uztailaren 11n, aspaldiko partez, entzierroaren aurretik La Pamplonesa plazan jotzen ari zelarik, gau-pasa egile ausart batek hondarrera salto egin zuten, baloi batekin. Jendeak txistu egin zion. Ez zen kokildu, eta, baldar samar, baloiarekin jolasean hasi zen. Jendea irainka hasi zitzaion. Ez zuen amore eman, eta, toreroen modura, plazari buelta eman zion.

Halako batean, beste bost mutil harmailetatik arera jaitsi ziren. Haiek, baina, ez zuten jolaserako batere asmorik. Nonbait Iruñeko zezenplazako publikoari zor zaion errespetaren defendatzaile, usadio zaharren babesle, korrika batean baloidun mutilarengana hurbildu, inguratu, eta jipoi gupidagabea eman zioten, ukabildakoz, ostikoz. Ez zen txalorik izan. Ez eta txisturik ere. Isiltasuna, besterik ez. Mutila plazako erizaintzara eraman behar izan zuten, konortea galdua. Sanferminak galtzen ari gara.

## kornerra

Mikel Elorza

Indartsuenean

**A**dministrazioak ez duela «negoziatzen» administrazio eremuko printzipioa da. Legea betetzea eta bere osotasunean betetzea dagokio Administrazioari. Ulargaria da, ondasun eta zerbitzu publikoen kudeatzaile den neurrian. Administrazioak ez, baina Estatuak negoziatzea dezake. Maila desberdinetako bere ordezkariaren bitartez, itunak lor ditzake, *legetatik* ere. Arazo baten aurrean *kontrarioa* baino egoera indartsuagoan dagoenean negoziatzea, *irabazteko* tenorean dagoenean bostekoa eskaintzea iruditzen zait niri inteligenteena. Arazo hori ebatzi eta atzera sor ez dadin modurik eraginkorrena, behintzat. Baina hori da, zoritxarrez, gutxienetan gertatzen dena. GRAPorekin negoziatu beharko luke Madril. Irtenbide bat eman, behin betiko, taldeko eta inguruko kideei. Nahiz eta ia azkenduta eduki. Zenbakien patu maltzurra berri ere: uztailaren 18an atxilotu dituzte.

[kornerra@egunkaria.com](mailto:kornerra@egunkaria.com)